

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Ibarrangelu



Aurkibidea

Udalerria: Ibarrangelu

Sarrera



Bizkaiko Busturialdea eskualdeko udalerria da. Oka ibaiaren ekialdean dago. Laga eta Laidako hondartzak udalerri honetan daude. Iparraldean Elantxobeko udalerriarekin egiten du muga, mendebaldean Oka ibaiarekin, ekialdean Eako udalerriarekin, eta hegoaldean Gautegiz-Arteaga eta Ereñoko udalerriekin. Udalerri hau Urdaibaiko biosferaren erreserbaren barnean dago, Arboliz auzoa izan ezik. Herriko gune nagusia Elexaldeko eta Ibinagako auzoak biltzen dituen haranean dago. sakabanatutako auzo ugari ditu: Arboliz, Akorda, Antzora, Andikone, Durukiz, Elexalde, Gametxo, Gendika, Ibaeta, Bolueta, Iturriotz, Tremoia, Iruskieta, Garteiz, Allike, Ibinaga, Laga, Laida, Lastarri eta Merru; horietatik garrantzitsuena Akordako auzoa da. 1858. urtean, Ibarrangeluren auzo izandako Elantxobe herritik banandu zen, udalerri independente bihurtuz. Horrela, arrantza herriaren jarduera ekonomiko nagusi izateari utzi zion. Ia 150 urtez banandurik egon arren, bi herrien arteko lotura oraindik oso handia da. Azken hamabost urteetan biztanleria gorantz joan da pixkanaka, eta etxebizitza ugari eraiki da, gehienak, udarako bigarren etxebizitzak direlarik.

- **Biztanleak:** 545
- **Euskaldunak:** %85,7

Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: 8

- Zintak: **14**
- Pasarteak: **39**
- Transkribatutakoak: **2**
- Audioak: **0**
- Bideoak: **39**

Proiektuak

- Antxinako Berriz. Bizimodua eta ohiturak
- Dialektologia-EHU
- Diasporako Ahotsak
- Eako ahotsak
- Ermuko Ahozko Ondarea
- Euskal Herriko Ahotsak
- Euskalkiak.eus
- IRALEren Bizkaiera Bilduma

Hizlariak

Laura Arrizabalaga Zarraonaindia (1929)



Ibarrangeluko Merru auzoan jaioa. Aita zuen bertakoa; ama, berriz, Eako Natxitu auzoko Galdiz baserrikoa zuen. 7 anai-arreba izan ziren eta bi nagusienak Galdizen (Ean) jaio ziren; gainontzekoak Ibarrangelun, Merru auzoan. Auzoa berez Ibarrangelu izan arren, bizimodua Natxitun egiten zuten. 16 urterekin ume-zain joan zen, baserriko bizimodua ez zitzaion gustatzen eta. Eara ezkondu zen.

Luzio Basterretxea Goitia (1927-2010)



1927an jaio zen Antzora auzoko Albiz handia baserrian. Gurasoak biak zituen antzorarrak. Lan desberdinetan aritu zen: trenbideko tuneletan zuloak egiten, itsasoan 12 urtez... Baina batik bat baserriko beharretan aritu izan zen. Soldadutza garaian sukaldari lanetan aritu zen. 1971an Muruetako Larrabe auzoko Landagoikoa baserrira joan zen bizitzera emaztearekin.

Hilario Etxaniz Arrate (1929-2020)



Ibarrangelun jaioa. 1968an Berrizera joan zen lan-kontuengatik. "Kamiñero" moduan lan egin zuen 41 urtez. Berrizko Antzinako bizimoduaren inguruko kontuak jasotzeko egin zitzaion elkarrizketa 2006 inguruan.

Piedad Lauzirika Uribarrena (1927-2017)



Ibarrangeluko eskolara joan zen 13 urtera arte. Aita marinela zuen, eta denboraldi luzeak ematen zituen itsasoan; amak bizimodua ateratzeko taberna bat zuen frontoi aurrean. Gerrarekin batera, aita atxilotu zuten eta urtetan non zegoenik ere arrastorik ez zuten izan. Gernika erre zuten eguna ondo gomutatzen du: hango suek iluntasunean mendien ostetik botatzen zuten argitasuna eta abioien azpiko gurutze gamaduak. Uruguayn zegoen Juan Eizagirre elantxobetar itsasgizonarekin ezkondu zen "por poderes" eta hantxe elkartu ziren andre-gizonok. Bi seme izan zituzten Montevideon emandako 14 urteetan, eta alaba gazteena jaio aurretik Ermura etorri ziren. Ermuan 30 urtetik gora bizi arren, ez du galdu Ibarrangeluko euskara.

Begoña Madariaga Jaio *Mari Allu* (1929)



1929. urtean jaio zen Ibarrangeluko Garteiz auzoko baserri batean. Zazpi ahizpa eta neba bat izan zituen. Oso gaztea zelarik gurasoak hil zitzaizkion eta neba-arreben artean konpondu behar izan ziren baserria aurrera eramateko. Akordako eskolara joan zen 14 urte izan zituen arte eta 16 urterekin, lehenengo Kanala eta gero Bilboko etxe batean neskame bezala jardun zuen sei edo zazpi urtez. Etxera bueltatu zenean, Eako Jose Mari Azpiri ezagutu zuen Ibarrangeluko gramolan eta 27 urte zituela, berarekin ezkondu eta seme bat izan zuten. Gizonaren jaiotetxean, *Allun*, bizitzen egon ostean, Ea erdigunera joan ziren. *Mari Allu* ezizenagatik da ezagunda.

Amador Zabaldeaskoa Idoiaga (1949)



Akordan jaioa, guraso biak bertakoak zituen. Bost senidetan bigarrena, Agarre Bekoa baserrian bizi ziren. Aitak itsasoan egiten zuen lana, merkante batean makinista. Amador Ibarrangelun eta Akordan ibili zen eskolan, eta gero Artes y Oficios ikasi zuen Gernika-Lumon. Ondoren tailer batean hasi zen lanean. Soldadutza egin ondotik Ameriketara joan zen artzain. 1970ean Los Banosera, hiru urteko kontratuarekin. Anparan-Erreka ardi-konpainiarentzat egin zuen lana, artzain eta "campero". Gero ardi-konpainia sortu zuen, beste batekin; bi urteren buruan bere kasa hasi zen konpainiarekin. Errekaren arrantxoa erosi zuen eta hori izan da bere bizibidea: ardiak eta behiak. Mary emazteak (Ameriketara sortua baina jatorri euskaldunekoa; aita Aldudekoa zuen eta amaren aldeko amatxi Baigorrikoa) eta biek hiru seme izan zituzten. Los Banoseko euskal klubeko kide aktiboa izan da.

Jon Zubieta Irauen (1921-2018)



Jon Zubieta aita Frantziskotarra Merru auzoan jaio zen, bere gurasoen auzo berean. Aita Ameriketara beharrean joan zenean, amagaz batera Arboliz auzora joan ziren Ibinaga auzora joan aurretik. 6 neba-arreba izan ziren, horietako 3 fraideak. Umetan Ibaetako eskolara joan zen 11 urtegaz Arantzazura (Oñati) joan arte. 8 urtegaz joan zen lehen aldiz bertara anaia bisitatzera, eta gero, 1932. urtean, 3 urteko seminarioko batxilergoa ikastera bueltatu zen. Handik irten eta hainbat tokitan egon zen: urte bi Foruan, Zarauzko nobiziotzan, Oliten 3 urtez filosofia ikasten, Arantzazun 4 urtez teologia ikasten, Gasteizen apaiztu eta Bermeon 5 urtez eta Foruan beste 6 urtez fraide egon zen. Azkenik 1961. urtean, Arantzazura bueltatu arte eta bertan egon da ordudanik, Arantzazuko inguru ederretan. Busturialdeko eta inguruetako hainbat herri eta auzotan misioetan aritu zen eta oso ondo ezagutu zuen zonalde hori. Gerra sasoiari, Ibarrangeluko jueza zen bere aita preso hartu zuten, eta Ibinagatik bertatik bizi izan zuen Gernikako erasoak. Elantxobeko elizako aldare nagusia Arantzazutik eroan zuen bere aitita karreteroak gurdian, bost eguneko bidaian. Bermeoko orfeoiko sortzailea eta lehen zuzendaria ere izan zen besteak beste; musikari trebea da Jon, eta Arantzazuko "Schola cantorum"eko zuzendaria eta organista ere izan zen. Herritik kanpo igarotako urteek bere hizkeran eragina izan dute eta ez du bertako berbaera; izan ere, gaztelaniaz eta latinez burutu zuen fraidetzarako ia bide guztia eta Oliten beste fraide batzuekin batera hasi zen euskara berreskuratzeko lanetan.

Domingo Zuluaga Uribarrena (1914-2010)



1914an jaio zen Ibarrangeluko Ibaeta auzoko Zubietabekoan. Umetan gurasoak Ameriketara izan zituen eta amonarekin hazi zen. 6 urte gaz Ibaetako eskolan hasi eta 12 gaz Arteako seminariara joan zen, "Seminario Menor de Castillo Elejabeitia"ra, lau urte igaro zituen bertan. Ostean, Gasteizko seminariara joan zen, bertan Manuel Lekuona eta Jose Miguel Barandiaran izan zituen irakasle. Ikasketa-prozesu horren tartean gerrak irten eta "Enlaces y transmisiones"en egon zen Bilboko eskolapioen eskolan; handik, ikasleak morse alfabetoa ikastera eramane zituzten Zornotzako fraideen komentura, lau urte luzez aritu behar izan zen zeregin horretan. Iurretako eta Akordako parrokoa izan zen urte luzez. Ibarrangeluko herriari ekarpen handia eginikoa da: maisu, postari, abade... ibilitakoa. Iurretako abade zela, Durangon sekretupean euskara-irakasle aritu zen. 1949an herrira bueltatu eta Ibarrangeluko "Lorea" eta Akordako "Berriotxo" dantza-taldeak sortu zituen. Txistua eta danbolina jotzen bere kabuz ikasi ostean akademia sortu zuen herrian. 1966an, 10 urtez iraungo zuen Ibarrangeluko zinema jarri zuen martxan. 2009. urtean, urte luzetan idatzitako "Ibarrangelu kantua eta kontua" liburua argitaratu zuen.

Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

1. Ekonomia eta industria

1.1. Gerrian lotuta dirua, Ameriketatik etxera

- **Hizlaria(k):** Arrizabalaga Zarraonaindia, Laura
- **Elkarrizketatzailea(k):** Gonzalez, Andere
- **Erref:** IBG-011/002
- **Iraupena:** 0:01:57. **Hasi:** 00:04:28. **Bukatu:** 00:06:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
 - Ekonomia eta industria » Kanpora lanera
 - Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
 - Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- **Laburpena:** Merrun jaio zenez, Ibarrangelukoa da. Neba-arreba zaharrenak Galdizen jaiotakoak direnez, Eakoak dira. Antzina mutilak Ameriketara bidaltzen ziren eta neskak hemen geratzen ziren. Aita ere joan zen eta gerrian lotuta ekarri zituen diruak; aita kontatzen zuen lo barik egin zuela bidaia, inork ez ziezaion dirua ostu. Aita dirua bidaltzeko eskatzen omen zion, arrebak hobeto hazteko.

Transkripzioa

- Ta zu han Merruko baserrixen jaixo ziñen edo zu nun jaixo ziñen?
- Ez, ni jaixo Merrun ein naz. Ta enkanbio... Bueno, ni Merruen. Bai. Nire neba-arrebak bidzek Galdizen. Bai. Nagosidzek bidzek Galdizen. Oseake, horrek die ietarrak, lekuek, ze Galdiz le dan lez... Bai. Ni, en kanbio,

Ibarrangelukue. Baia nik e, nire neba-arreba nagosi bidxek, Maria ta Gregorio, horrek galdiztarrak. Ta ni ya... Gero, zazpi izen gara gu ta bestiok danak Merrukuek. Bai, Merrukuek. Merru... goikue izen biherrien behekie. Ze gure aitte... nire aitte, izetez... nire aitte, izetez, Merrukue zan, baia antxiñe danak juten zien Amerikara edo dana dalakue. Neskak ya gelditzen zien etzien edo, ta ze eitten eutsen /eittentsen/? Gurasuek bota mutilek hara ta “Zuek bota dirue, nire horrek... ondo... hobetuau bizitzeko”. Ta gure aittek esaten eban: “Nik ein dotez hainbeste ostera Amerikara...”, baia ordun denporan, ordun denporan, klaro, lehen be bizi ta oin be bizi. Bueno, lehen be bizi gara ta oin be bai ta dana dala. Esaten da... Amerikatik etorri, barkuen, beran barkuen etorten zan ta eukitxen ebazen gerrixen barruen diruk gordeta. Ordun ez euen korreorik ez ezebez ta, klaro, korreuen ez zatozen, horrek etorko zien “vete a saber” bodegatan edo zelan etorten zien, ez dakit zelan etorten zien. Ta esaten [dau] berak: “Dirue? Ekarri hamen ta ezin ein lorik gabaz! Ze lo eitten bagun /badogun/ igual ostu eingo doskuen dirue ta al bela. Ta amak esaten eban: “Zuk bota niri dirue, zure arrebak hobetotxuau bizitxiarren”. Ta gizonezkiek, ba, bueno, Amerikara, Amerikara.

2. Baserria

2.1. Gerra ostean txerria ezkutuan hazi, hil eta gorde

- **Hizlaria(k):** Arrizabalaga Zarraonaindia, Laura
- **Elkarrizketatzailea(k):** Gonzalez, Andere
- **Erref:** IBG-011/034
- **Iraupena:** 0:02:24. **Hasi:** 00:46:00. **Bukatu:** 00:48:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea
Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- **Laburpena:** Ez zen okelarik saltzen. Deklaratu egin behar zen zenbat ganadu zegoen baserrian, baina ez zen dena aitortzen. Ezkutukoa gauez hil eta gatzun-askan ezkututzen zen. Ohe azpiko oholak altxa eta hantxe izaten zuen aita janaren gordelekua. Baserrian ez zuten goserik pasa gerra ostean.

Transkripzioa

Pentsa zelan izeten zan, ez, ez eben itxiten ez behidxek, txahalak etzien okin... Okelarik ez zan salduten, ez zan inon [...] ez zan egon, ez okelarik, ez txarrik, ez ezebe ez zan egon. Ta baserridxetan gu ondo egon garizen, ze... aunke kontrolata zauzen zemat behi dekozun; kontrola eitten eutsuen /eitxentsuen/ aiuntamientuek. Etorten zien lantzien-lantzien errebisaten, ta kontrola eitten eutsuen /eitxentsuen/ zemat dekozun. Gero zemat txahal dekozun deklaratu ein bizu, baie sarriten ez zan deklaraten, ta gabaz hil txahala, ta holanik gatzun-askan gorde, ta etzien gordeta. Ostantzien ezin dogun erosi. Iñun ez dan saltzen geuzie. Ta oin kontrabandua tabakuna dan lez, edo apio, edo dana dalakue, ordun ogidxe izeten zan. Ogidxe edo, artue edo, ez auen ta. Ta okelarik bez, ez txarri gauzarik bez. Ze guk baserridxen ez dogun /eztogun/ okin bildurrik horrexegaittik. Txarridxe bazan be, bi okin ta bat deklaratu; ta bigarrena gabaz hil, ta gatzun-askan sartun, ta gatzun-askan be pentsa zelan sartuten doguzen /sartutenguzen/ guk. Nik... Gure etzien, patatak ta garidxe be gure aittek okitxen ebazen...

Baserri etzien, ba, ohola dana, ta ezkatza be ohola zan, baia garbidzek giñen e, ze leña ta, leñarik ez zauen bihar. Zegaz garbittuten dogun / garbittutengun/ ba? Zepilluaz ta behinpiñon garbi-garbi eitten dozun / eittenzun/. Ta egoten zien ganera, lehengo oholak zien zabalak eta gaztaiñazkuk, fuerte-fuertiek, ta gure aittek esan eban /esaban/ “Ez ba, niri ez doste /eztoste/ gehidxau ingo”. Altza eban, ohien azpidxen, altza eban oholak, ta hantxe barruen sartu ebazen, ta gero ohola ipini ganetik ta ez zakidxen inork be han barruen zer dauen. Baie, klaro, zazpi neba-arreba edo zazpi hori ta gero bederatzi lagun, ta jan ein biher zan /bizan/ zeozer, jan ein biher zan /bizan/, ta holantxik. Ta gero gabaz jutun zan igual Omara edo dana dalakure, ekarteko, ekarteko jatekue. Ta kontuixu, jente, errez zauen atrapatun, baie kontuixu ez dakit /eztait/ nik ba, bueno mendirik mendi izeten zan lez... Ta holantxik urtitan, urtitan. Gero dan-dana naturaldu ein zan, baia, baia... Ta kalien bizi zanak txarto, baie gu baserridxetan gero ondo, ondo.

Transkripziorik gabeko pasarteak

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

1. Eskolan Doña Eufemiarekin (IBG-010/003)

Ibarrangelun Gartizen jaio zen. Bederatzi urte inguru zituela gurasoak hil zitzaizkien. Eskolan Akordan ibili zen, Doña Eufemiarekin, hamalau urtera arte. Neska-mutilak elkarrekin ibiltzen ziren.

2. Kanalan eta Bilbon neskame (IBG-010/008)

Kanalera eta Bilbora neskame joan zen. Etxeko lanak egiten zituen eta janaria prestatu. Bilboko merkatura joaten zen erosketak egitera.

3. Elizaren boterea (IBG-010/011)

Lehen elizak boterea zuela uste du, jendearen fedearengatik. Elizan aulkiek izena izaten zuten eta apaizek dirua eskatzen zuten mezetan. Apaiz batzuk izendatzen ditu.

4. Eako San Juanak (IBG-010/015)

Eako jaiak San Juanak izaten ziren. Sua pizten zuten eta erromeria izaten zen.

5. Ahizpak anaiekin ezkondu (IBG-011/003)

Ama eta ahizpa bi anaiarekin ezkondu ziren. Semeak fraide joanda, alabarekin geratu zen Merruko familia batek saldu zieten baserria gurasoei.

6. Gramola zegoen tokira dantzara (IBG-011/004)

Bizimodua Natxitun. Eskolara Narxitura. Erromeriara, gramola zegoen tokira: Natxitura, Eara edo Ibarrangelura. Bestela Bitor danbolinteroak atabala jotzen zuenean, gazteek dantzan. Natxituko tabernak arkupe bat zuen eta han elkartzen ziren. Prakarik ez zuten janzen neskek; kaltzetin txikitxoak soinean zituztela ibiltzen ziren.

7. Neguan josten ikastera eta udan umezain Eara ra (IBG-011/005)

Hamasei urterekin atera zen Merrutik; aspertu egiten zen ez zitzaiolako baserria gustatzen. Neguan josten ikastera joaten zen eta udan Telleria familiako umeak zaintzera.

8. Ez zuen gustuko baserriko bizimodua (IBG-011/006)

Amarekin patatak jorratzera joatea gustatzen zitzaion, eta baserriko lanak egiten ere ikasi zuen, gortakoak ere bai; baina ez zuen gustuko baserriko bizimodua. Ahizpak ere ez.

9. Elantxobera esnea saltzera (IBG-011/007)

Ama esnea saltzera Elantxobera joaten zen. Merrutik, hiru baserritakoak joaten ziren txandaka; hiruren artean astoa bete eta egunean bat jaisten zen. Laurari gustatzen zitzaion esnea banatzea etxerik etxe, eta hasi zen horretan, amaren ordeez.

10. Kantina besapean hartuta, etxeetara esnea saltzera (IBG-011/008)

Negu bat Bibon egin zuen, Telleria familian neskame. Astoan hiru kantinplora edo kantina sartzen ziren esnea eramateko. Elantxoben, astotik kantina atera, besapean jarri eta etxeetara igotzen ziren esnea banatzera. Hiruretako bati semea gaixo etorri zitzaion gerratik eta bera ere kutsatu egin zuen; orduan utzi egin zion esnea banatzeari. Inguruko baserri askotatik joaten ziren esnea saltzera herrira.

11. Kaleko iturrian beteta esne-kantina (IBG-011/009)

Bilbon ere bazeuden esnedunak. Lanean egon zen etxeko esneduna trenean heltzen zen Bilbora, Laudiotik edo. Baina etxean konturatu ziren urtsu etortzen zela esnea; konprobatu zuten ura zuela, jagon zuten leihotik eta ikusi zuten auzoko iturrian gehitzen ziola ura.

12. Tarteran eguneko bazkaria (IBG-011/010)

Esneak Elantxoben banatu ondoren, Eara joaten zen jostera. Tarteran eramaten zuen bazkaria eta kafesnea. Jostunaren etxean berotzen zuen etxetik eramandakoa, eta iluntzean baserrira itzultzen zen. Dena oinez.

13. Sasitzara erori zen, ezkutatu nahian (IBG-011/011)

Behin beldurra ere pasatu zuten etxera bidean gauez. Autoekin kontuz ibiltzeko esaten zieten; Sacamantecas edo izan zitekeela eta. Autoa ikusiz gero, ezkutatu egiten ziren. Behin zuhaitz baten atzean ezkutatu nahian, sasitzara erori zen Laura, eta min hartuta itzuli zen etxera. Laurak dio ezeri ez ziotela beldurrik garai hartan; autoei baino ez.

14. Bermeoraino bizikletan (IBG-011/012)

Oraingo umeak baino ausartagoak ziren Lauraren garaiko umeak. Bizikletak pasaiarian pasa errekaen beste aldera eta Bermeoraino joaten ziren bizikletan.

15. Mundakako aldatza igo ezinik bizikletan (IBG-011/013)

Nesken bizikletak astunak ziren, mutilenen aldean. Behin, Mundakako aldapa igo ezinik zebiltzala, mutilek atzetik gonak altxa eta ipurdian jo zituzten.

16. Etxetik eskolarako bidea egunean lau aldiz oinez (IBG-011/014)

Ibarrangeluko eskolara oinez joaten ziren: hamar minutu mendiko bideetan. Zortzi eta erdietan sartzen ziren eta hamaika eta erdietan elizara, dotrinara. Etxera itzuli, bazkaldu eta berriz eskolara. Mizkina zenez, sarritan ezer gutxi jaten zuen mahaian. Bideko fruta arboletako sagarrak edo gereziak jaten zituzten.

17. Eskolak kenduta, lezio partikularretara (IBG-011/015)

Gerra garaian eskolak itxi zituzten eta partikularrera joaten ziren Zuloaga anaiei etxera, Ibarrangelura. Txandaka, egun batean bai eta bestean ez, etxeko txikiak zaintzeko.

18. Ume asko ziren Merrun (IBG-011/016)

Orain ez da bizi inor Merrun, baina orduan ume asko ziren. Berrogei lagun elkartzen ziren. Mutilek gurdi antzekoak egiten zituzten, errailak egin eta gora eta behera jolasten zuten haiekin.

19. Arteen sustraietan olgetan (IBG-011/017)

Arteria (artadi) handia dago Merrun; arteen sustraietan jolasten zuten neskek nesketara. Ez zuten jostailurik. Etxean apurtzen ziren ontzien zatiekin jolasten zuten. Trapuzko panpinak zituzten. Gertakari handia izan zen ahizpari erregeek ekarritako portzelanazko panpina, baina erori eta apurtu. Soka, "arreburo" edo "esconderites" ezkutaketan jolasten zuten.

20. Astean behin lixiba (IBG-011/018)

Euren etxean patin handi bat egin zuen aita eta handik ateratzen zuten ura. Arropak deslabateko (garbitzeko) presa bat zuten eginda eta harriak inguruan. Arropa astoan edo buruan eramaten zuten, hantxe deslabatu eta eskegi egiten zen. "Lexibie" esaten zitzaion. Oheko izarak eta, ziren astean behin garbitzen zirenak. Lixibarik ez zegoenez, sutako hautsa ur irakinetara botata erabiltzen zen arropa zuritzeko.

21. Baldeen txirrindola jostailu (IBG-011/020)

Astean behin egiten zen "txabonadurie" (arroparen garbiketa. Arropak eramateko erabiltzen ziren baldeek errail biribil bat zuten (txirrindola) eta hori erabiltzen zuten mutilek jolaserako.

22. Soloak ematen zuena jaten zen (IBG-011/021)

Garia eta artoa ereiten ziren. Bertoko patata gutxi egon zen. Gerra ostean patata beltza ekarri zieten, alemaniarra edo. Tomatea eta piperra egoten ziren, baina tomate gordinik ez zen jaten, egindakoa bai. Ogia eta artoa ez zen falta, baina errotara joan behar izaten zen. Ibarrangelun, bi errota zeuden artoa ehotzeko, eta gariarentzako bat.

23. Gari-jotzea baserriz baserri (IBG-011/023)

Gari-jotzea. Ekain-uztail inguruan garia ebakitzen zen eta mont(x)oietan lotzen zen. Sorta horiek metan pilatzen ziren, behetik gora; eta negua gogorra izanez gero, estali egiten zen meta zakuren batekin. Aita baserriz baserri joaten zen garia jotzera. Makina bakarra zela uste du Laurak. Motortxo bat aurreko aldean eta garantzeko zilindro antzeko bat atzean. Zilindro barruan sartu garia eta alea lurrean jarritako toldo baten gainera erortzen zen. Beste makina batek galbahe lana egiten zuen.

24. Eguerdian indabak egunero (IBG-011/025)

Negu gogorretan gariaren lastoa behar zen animaliei emateko. Etxean, indabak egoten ziren bazkaltzeko eta porru-patatak, baratxuri-zopa eta halakoak jaten ziren afaritan. Euren etxean sartenekoa (zartaginekoa) afaritan.

25. Egur mehekin berotzen zen labea (IBG-011/026)

Etxe guztietan egoten zen labea. Hura berotzeko egur mehe-meheak erabiltzen ziren. Makila baten muturrean belarrak jarri eta hura pasatzen zen labe barrua garbitzeko.

26. Ondo zapaldu behar zen irina kaxa barruan (IBG-011/028)

Irina ka(i)xetan gordetzen zen eta artesan egiten zen ogia. Goizean behiekin errotara eramaten zen garia edo artoa, eta gauean eramaten ziren irin-zakuak baserrira. Kaxaren hondoan gatz apur bat jartzen zen eta gainean irina ondo zapalduta.

27. Egunez ogia eta gauetan taloa edo morokila (IBG-011/029)

Egunez ogia jaten zen, baina gauean taloa. Taloa eta esnea zen afaria; edo patata frijituak eta txorizoa arto barruan edo talo barruan sartuta. Beste batzuetan, morokila jaten zen: arto-irina urarekin eta gatzarekin eginda, galdarako beheko aldea erre arte.

28. Morokilaren hondoan erre arte sutan (IBG-011/031)

Azpia erre arte egon behar zen irakiten morokila. Ogia geroagoko kontua da. Bizimodua asko aldatu da.

29. Kaminorik zapaldu barik errotara (IBG-011/033)

Omako irina Ibarrangelukoa baino hobe zen, finagoa. Errazionamendu garaian ezin zen nahi beste erosi eta kaminotik joan beharrean mendirik mendi joaten ziren.

30. II. Mundu Gerrako itsasontziak bonbardatzen ikusten zuen Elantxobetik (IBG-011/035)

Gernika bonbardatu zuten hegazkinak gain-gainetik pasa zitzairen amari eta berari patata jorratzen ari zirela. Hurrengo egunean sutan ikusi zuten Gernika. Baina gerra ostean, Elantxobetik ikusten zituen Frantziako gerrako hegazkinak gerrako itsasontziak bonbardatzen, eta horiek erantzuten; hondoratzen ere ikusi zuen eta oso triste jartzen zuen horrek.

31. Behiak basoan ezkutatuta gerra garaian (IBG-011/036)

Aia behiekin joan zen Gernikara, Natxituko familia baten altzariak edo, etxera ekartzera. Bidean aurkitu zituen nazionalak, eta pasatzen utzi zioten, baina beste baserritar bati ez. Orduan behi guztiak kortatik atera eta basoan ezkutatu zituen. Aita ez zen alde batekoa ez bestekoa izan, eta seme-alabak ere ez ziren inolako ekitaldi politikotara joaten.

32. Zumaiarrak alboko etxean gerra garaian (IBG-011/037)

Gipuzkoatik ihes egindako zumaia batzuk egon ziren ezkutatuta euren alboko etxean. Baina ez daki nork ekarritakoak ziren edo nola heldu ziren. Geroago ere ama joaten zen Zumaiara; beraz, jarraitu zuen harremana izaten, baina seme-alabek ez.

33. Ezin buruz ikasi erdarazko lezioak (IBG-011/038)

Aitaren andereñoa izandakoa izan zuten irakasle lehenengo urteetan; euskalduna zen. Baina gerra ostean erdalduna jarri zieten eta komeriak izan zituen buruz ikasi beharreko lezioekin. Orduan bere burua ez zuen ikasteko gai ikusten eta ez zuen jarraitu Natxituko eskolan hamabost urtera arte ikasten. Dotrina ere lehenengo euskaraz, eta gero dena erdaraz.

34. Gernika sutan zegoela eurak aristian ezkutatuta egon ziren (IBG-011/039)

Gerra garaiko oroitzapen handirik ez du: hegazkinak gainetik pasatzen, Bigarren Mundu Gerrako itsasontzien bonbardaketak eta aitaren pasadizoa. Gernika erretzen zegoela, artadian ezkutatuta egon ziren eta Ikusi zuten Ibarrangelun bonba erortzen eta Armendu mendian hainbeste botatzen, baina ez ziren lehertu. Nazionalak sartu zirenean, frontea izan zuten hurbilean eta ogi zuria eman zieten pozik.

35. Etxekoa baino gusturago kanpoko ogia (IBG-011/040)

Nazionalak sartu zirenean, frontea izan zuten hurbilean, Arbolizen, eta alemanek ogi zuria eman zieten, pozik. Errazionamenduko ogia ezberdina zenez, etxekoa baino nahiago zuten.

36. Indabak zirelakoan, ez zuen txokolatea probatu (IBG-011/041)

Ibarrangelun zegoen gozogilea. Jaunartze egunean hango kanutilloak ikusi zituen, txokolatea gainean zutela, eta aitak indabak zirela esan, eta orduan ere jan ez. Ez zekiten zer zen txokolatea. Etxean azukrea egoten zen eta amak frutekin dultzea egiten zuen.

37. Esnearen kipurra amaren dultzea baino nahiago (IBG-011/042)

Errazionamenduan dena zen liburuarekin. Ibarrangeluko denda batera joaten ziren eta liburutik kentzen zizkieten kupoiak. Geroagoko kontua da ogia txokolatearekin jatea. Eurek etxeko dultzea eta ogia zuten, baina nahiago zuten galدارako esne egosiaren kipurra (esne-gaina).

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com